

2018


PIPER

GORRI

2019

IKSTUR

TEA



ILUSTRAZIO SARITUAK




Xabat Arburua Portu 1.maila



Izaro Zelaieta Egia 2.maila



Adur Erkizia Arburua 3.maila



Maddi Hoyos Eguzkiagirre 4.maila



Ainitze Martinez Olazabal 5.maila



Nahia Pumar Iturrioz 6.maila

TXOKO-TXIKI XXXVI.
IPUIN ETA ILUSTRAZIO LEHIAKETA

IPUINAK:

“ELENE ETA SORGINA”

“Izarrak” Nahia Ubiria Artola (1. maila)

“BLUREN ISTORIA”

“Kristi” Lizar Fernandez Fresneda (2. maila)

“MAIALEN ETA MAITAGARRIA”

“Fresita” Iratz Susperregi Mutuberria (3. maila)

“IRATIREN AMETSA”

“Ubi” Irati Ubiria Garmendia (4. maila)

“GEZURRA DIRUDIENA EGIA BIHURTZEN”

“Ilargi” Saioa Orbegoza Arzuaga (5. maila)

“FAMILIA”

“Ilargi” Maitane Erkizia Arburua (6. maila)

ILUSTRAZIOAK:

“KOKODRILO” Xabat Arburua Portu (1. maila)

“PAULA” Izaro Zelaieta Egia (2. maila)

“NEYMAR” Adur Erkizia Arburua (3. maila)

“MIMI” Maddi Hoyos (4. maila)

“EGUZKIA” Ainitze Martinez Olazabal (5. maila)

“ARGIBI777” Nahia Pumar Iturrioz (6. maila)

ELENE ETA SORGINA

Bazen behin, Elene izeneko neskatila bat. Ilea luzea zeukan, begi marroiak zeuzkan eta ile horia. Helatuak gustatzen zitzaizkion eta lagunekin jostatzea.

Egun batean, jolasean zebilela, pitzadura batean behera erori zen Elene. Bertan, maitagarri ilegorri batek, gurari bat eska zezakeela erran zion...

- Parisera joan nahi dut hegaka eta Eiffel dorrea ikusi nahi dut.

Orduan maitagarriak hegaka eraman zuen eta mundua zeharkatuz, Eiffel dorrean utzi zuen. Eta sorgin bat agertu zen eta sorginak erran zion:

- Nahi al duzu nire etxera etorri? Sagar goxo-goxoak ditut.

Eta Elene sorginaren etxera joan zen. Sagar pozoitsua jan zuen eta lo gelditu zen.

Orduan, maitagarria agertu zen eta Eleneri ukitu zion eta esnatu egin zen. Sorgina Eiffel dorretik bota zuten eta sorgina hil egin zen eta Paris guztia kontent-kontent jarri zen.

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila Parisen eta atera dadila Eiffel dorrean.

“Izarrak”

Nahia Ubiria Artola (1. maila)

BLUREN ISTORIA

Bazen behin Blu izeneko mutiko bat, 8 urte zituen Lamenezango etxe batean Blu bizi zen.

Jolasean zebilela pitzadura batean behera erori zen. Bertan maitagarri ile gorri batek gurari bat eska zezakeela esan zion...Bluk eskatu zuena zen edozein garraiotan bihurtu zitekeen kotxe bat. Bluk eskatu zion globo bihurtzeko eta kotxea globo bihurtu zen. Blu gainera igo eta pitzaduratik gora joan ziren. Goian hegazkin bihurtu zen eta buelta bat ematera joan ziren biak airean.

Or goian pila bat txori ikusi zituzten adibidez hauek: okila, lertxuna, martin arrantzalea eta batzuk gehiago.

Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Lesakako plazan.

“Kristi”


Lizar Fernandez Fresneda (2. maila)

LEHEN GIZAKIA


1.-2.maila




ONEKA, ADUR ETA AIERT (2.maila)




XABAT ETA OIHAN (1.-2. maila)




INTZA ETA JARE (1.-2. maila)




OIER ETA ELORRI (1.-2. maila)




NAHIA ETA LIZAR (1.-2. maila)




KEMEN ETA ENEKO (2.maila)



EILA ETA URKO (1.-2. maila)




JULEN ETA IORITZ (1.-2. maila)



IZARO ETA BEÑAT (2.maila)



ENERITZ ETA TELMO (1.-2. maila)



LUKA ETA ARHANE (1.-2. maila)

BARATZEA



1-Konposta galbahetik pasa dugu.



2-Haitzurrarekin lurra prestatu eta erraia egin dugu.



3- Patatak
moztu,
lurrean jarri,
konposta bota,
lurrarekin
tapatu eta
aitzurrarekin
pixka bat
zapaldu ditugu.



Maiatzaren 15ean patata erein dugu eta astean behin baratzea
begiratu dugu ia noiz agertzen zaizkigun.

Noiz agertuko dira landareak?

HIPOTESIAK:

- Irailan
- Uztailean agertuko dira berdeak
- Ekainak 6rako
- Irailak 17rako
- Maiatza bukaerarako
- Ekaina erdialderako

MAIALEN ETA MAITAGARRIA

Jolasean zebilela, pitzadura batean behera erori zen Maialen. Bertan maitagarri ilegorri batek gurari bat eska zezakeela erran zion.

- Lagunduko al didazu hemendik ateratzen?- erran zuen Maialenek.

Maitagarriak lagundu nahi zion baina ezin zuen Maialen hagitz handia zelako.

Arratsean Maialenek gosea zuen baita hotza ere. Maitagarriak janaria eta manta bat ekarri zizkion eta berarekin gelditu zen lo egiten.

Goizean Maialen ernatu egin zen eta sorpresa bat izan zuen. Maitagarri pila bat zeuden berari laguntzeko eta altxatu zuten eta lortu zuten denen artean zulotik ateratzea. Maialen hagitz kontent zegoen eta etxera joan zen eta ama eta atta besarkatu zituen.

Arratsaldean ama eta aita berarekin joan ziren helatu bat jatera eta maitagarria berriz jendeari laguntzen hasi zen. Maialenen amari helatua erori zitzaion eta lurra ukitu baino lehen maitagarriak hartu zuen. Ama hagitz kontent zegoen eta galdetu zion maitagarriari

- Nahi duzu gurekin bizi baserrian?

Maialenen ama eta aitak baserri bat erosi zuten eta animaliak jarri zituzten: zaldiak, poniak, zakurrak eta oiloak, oilo bat hamalau txitorekin.

Baserri hartan bizi egin ziren betiko ama, atta , Maialen eta maitagarria

“Fresita”

Iratz Susperregi Mutuberria (3. maila)

IRATIREN AMETSA

Jolasean zebilela, pitzadura batean behera erori zen Irati.

Bertan maitagarri ilegorri batek gurari bat eska zezakela esan zion eta “riiin riiin” iratzargailuak jo zuen eta Irati ernatu eta gosaltzera joan zen.

Amak galdetu zion:

- Ongi lo egin duzu?

Eta Iratik erantzun zion:

- Bai, amets zoragarri bat izan dut.Kontatzea nahi?

Eta amak:

- Bai, zergaitik ez!

Irati ametsa kontatzen hasi zen:

- Horrela hasten zen: jolasean nenbilela, pitzadura batean behera erori nintzen eta maitagarri ilegorri bat etorri zen eta gurari bat eska nezakeela esan zidan.

Amak galdetu zion:

- Eta gero?

Iratik erantzun zion.

Gero, ba...iratzargailuak jo zuen!

Amak triste:

- Ze pena! Gehiago jakin nahi nuen.

Iratik esan zion:

- Bai...eta nik. A! ideia bat daukat!

Amak galdetu zion:

- Zein?

Iratik esan zion:

- Ametsean gertatu zenekoa egingen dut!

Irati basora joan zen eta jolasean ibili. Baina azkenean, ametsean bezala pitzadura batean erori zen Irati, eta han maitagarri ilegorri bat zegoen eta gurari bat eskatzen ahal ziola esan zion.

Iratik pentsatuz:

- Ba, ez dakit zer eskatu. A! badakit ...3 gurari gehiago eskatuko dizkiot. 1. Plastikoaren arazoa konpontzea. 2. Pertsona guztiak pozik bizitzea eta 3. Handitan artista izatea!

Maitagarriak:

- Ba, gurari hoiek beteak daudel.

Iratik maitagarriari eskerrak eman zion :

- Eskerrik asko ! orain hemendik atera nahi dut!

Maitagarriak erantzun zion:

- Horretarako, maitagarri ilehoriari esan beharko diozu. Hortik joaten da.

Orduan, Irati maitagarri ilehoria bilatzera joan zen eta bidean ipuinetako pertsonaiak ikusi zituen: Argitxo, basajaun, katu botaduna eta gehiago. Eta orduan, maitagarri ilehoria etorri eta irtetzen lagundu zion.

Etxera bueltatzean, bere ama oso harrituta gelditu zen Iratik istorioa kontatu zionean.

“Ubi”

Irati Ubiria Garmendia (4. maila)

LIBURU TRUKAKETA

Apirilaren 23an liburuaren nazioarteko eguna izan zen eta hortaz, liburu trukaketa egin genuen Tantirumairu ikastolan.

Lehenengo trukaketa, apirilaren 12an egin genuen eta bigarren trukea, maiatzaren 6an.

Bakoitzak bere gustuko liburua ekarri zuen eta zozketa egin genuen. Horrela, liburua aukeratzen lehendabizikoa eta azkenekoa nor zen jakiteko.




Bakoitzak gehien gustatu zitzaigun liburua hartu eta etxean irakurri genuen. Helduek gauza bera egin zuten: egun batean, ikastolaren atarian irakasleak eta gurasoak 16:30etan gelditu ziren eta trukea egin zuten.

Unai, Oier S, Enaitz eta Leire.

BILATU DESBERDINTASUNAK

Zazpi desberdintasunak? Ez! Aurtengoan 8 desberdintasun bilatu beharko dituzue. Animo!



Ugaitz, Haizea eta Maddi

LANDAREEN UGALKETA

MATERIALA: -Kristalezko poto bat -Kotoia -Haziak(Babarrunak, dilistak, garbantzuk...)	NOLA EGIN: 1-Lehenik kristalezko poto bat hartu. 2-Erdialdean geratzen den hutsunea kotoiz bete , gehiegi zapaldu gabe, eta nahiko harro utziz. 3-Kotoi mehea eta kristalaren artean haziak paratu. 4-Kotoia busti. Kontuz! kotoiak pixka bat bustita egon behar du beti, baina ez urez blai!
HIPOTESIA: Gure hipotesia haziari zainak ateraKO direla da eta baita zurtoina ere.	
DATUAK: Ortziralean hazi batzuk kristalezko poto batean utzi genituen eta zain txiki batzuk atera zaizkigu astelehenerako.	
Oharra: ikusi genuen zainak atera zitzaizkiola eta orduan lur azpian sartu genituen. Batzuk tiesto batean eta bertzeak baratzean. Geroago ikusiko dugu zer pasatzen den.	

Kattalin, Eñaut, Matixa eta Oinatz

LETRA ZOPA

Letra zopa prestatu dugu. Espero dugu hitz guztiak aurkitzeko gai izanen zaretela!

- | | |
|--|--|
| 1-Oihaneke erregea. | 8-Buruz beheiti lo egiten dut. |
| 2-“Auuu!!!” egiten duen animalia. | 9-Sudurrean adar bat daukat. |
| 3-Pozoitsua den animalia. | 10-Gorputza berdea daukat eta plakaz osatutako geruza bat gorputzean. |
| 4-Zebrabideari bere koloreak ematen dizkio. | 11-Oihanean bizi naiz, belarri txikiak ditut eta gorputz handia. Nor naiz? |
| 5-Tronpadun animalia. | 12-Klima hotzetan bizi den orein mota. |
| 6-Bi letagin ditut eta lasterka aunitz egiten dut. | |
| 7-Zuhaitzetik zintzilik nago. Nor naiz? | |

H	I	P	O	P	O	T	A	M	O	A	T	J
E	L	E	F	A	N	T	E	A	T	A	R	H
K	K	L	L	H	J	I	L	H	S	E	K	G
H	A	K	Z	E	B	R	A	G	O	D	U	A
D	R	J	R	A	H	P	T	D	A	R	H	O
F	I	H	E	D	K	O	D	K	I	U	A	N
M	B	G	U	H	G	K	I	H	O	S	J	I
I	U	G	A	S	M	N	F	A	D	A	M	M
S	A	F	A	D	F	B	G	J	H	B	R	I
S	A	G	U	Z	A	R	R	A	R	A	B	X
E	R	R	I	N	Z	E	R	O	A	D	O	T
K	R	O	K	O	D	I	L	O	A	D	P	M

Libe, Oier A eta Ekhi

EKAINBERRIRA IRTEERA

Martxoaren 28an ikastolarekin Ekainberrira joan ginen. 8:45ean abiatu ginen suhiltzaileetatik. Autobusean “Pimiento colorado” kantatzen aritu ginen. Autobusak aparkaleku batean utzi gintuen. Bidea hagitz luzea zen eta aitzinerago mendia zegoen. Ekainberrira ailegatu ginenean, 1. eta 2. mailakoek tailerrak egin zituzten eta 6. mailakoak, libre zutenez, egiazko kobazuloa ikustera joan ziren.

Guk bitartean kobazuloko bisita egin genuen. Neska batek erakutsi eta azaldu zigun kobazuloa tablet batekin. Hagitz iluna zegoen eta gelakideekin txokatu egiten ginen. Kobazuloa guk uste baina handiagoa zen eta bertan ginenean, ura izan behar zuen lekuan bideo bat erakutsi zigun gidak. Labar-pinturak nola egiten zituzten azaldu zigun bideoak.



Handik aterata, egiazko kobazuloa ikustera joan ginen baina itxita zegoen eta kanpotik ikusi genuen. Mendian gora eta behera aritu ginen jostatzen. Gero, tailerrak egin genituen eta sua bizteko modu desberdinak ikasi genituen. Handik bazkaltzera joan ginen eta pixka batean jostatu ondoren, Lesakara itzuli ginen.

Oier A. Libe eta Ekhi

#planetaedoplastikoa



Plastikoarekin arazo handia dugu eta beharrezkoa denen artean neurri batzuk hartzea.



Plastikoa planeta jaten ari da, hau da, gure munduan egunetik egunera plastiko gehiago dago.



Animaliak plastikoa jaten dute eta aunitz hil egiten dira.



Bertze batzuk plastikoan trabatu egiten dira eta ez baditu norbaitek salbatzen hil egiten dira.



Mendira edo hondartzara joaten garenean gure zaborra guk bilduko dugu.



Plastikoak 450 urte behar ditu desagertzeko.

NOLA MURRIZTU DEZAKEGU PLASTIKOA?



Gosari eta berenduak ontzi berrerabilgarrietan sartu. Horrela zilarrezko papera eta plastikozko ez ditugu erabiliko.



Erosketak egitera joatean, etxetik eramanez poltsak, oihalezkoak edo dendetako gogorrak.



Plastikozko pajitak ez erabili, itsasora ailegatu daitezke eta.



Plastikozko botilak ahalik eta gutxien erabili, horren ordez kristalezkoak edo kantineplorak erabili ditzakegu.




Plastikoan bilduta dauden gauzak ahalik eta gutxien erosi.



Frutaren azala konpostera bota baino lehenago pegatina kendu, konpostari kalte egiten dio eta.


LESAKAKO ARMARRIA EGITEN



Lehenbiziko arkatzarekin armariaren kanpoko forma markatu dugu. Gero forma hori lau zatitan banatu dugu eta ondoren barreneko marrazki txikiak egin ditugu.

Poliki-poliki xehetasun guztiak marraztu ditugu, aunitzetan borratu eta berriz egiten ditugu gauza batzuk, pixka bat hobetzeko.


Azkenik, kanpoko hostoak marraztu ditugu.



Arkatzarekin bukatu dugunean, punta fina duen boligrafo beltz batekin egindako guztia errepasatu egin dugu.

Horrela, hasieran egindako marrazkia hobetzen saiatu gara eta txukunago utzi dugu.

Dena errepasatu eta boligrafoa lehortu denean, arkatza borratu egin dugu.



Boligrafoarekin bukatu eta dena ongi dagoela ikusi dugunean, margotzen hasi gara. Horretarako errotuladoreak erabili ditugu, eta saiatu gara egiazko armariaren kolore berak erabiltzen.

Gure armariak prest daude Piper gorriren kontra-azalean paratzeko. Norena aukeratuko ote dute?

Xabier, Irati U., Maddi eta Kattalin



GEZURRA DIRUDIENA EGIA BIHURTZEN

Jolasean nenbilela pitzadura batean behera erori nintzen. Bertan, maitagarri ilegorri batek, gurari bat eska nezakeela erran zidan.

Ezin nuen sinetsi. Baina ezin nuena sinetsi bere ahotsa zen eta banekien noren ahotsa zen, Markelena. Seguru, bertze behin, adarra jotzen ari zela. Beti egiten dizkit horrelakoak eta ez zaizkit batere gustatzen. Adibidez, klasean txintxeta bat aulkian jarri zidanean, edo papera batekin nik usain txarra daukadala erran zidanean, horrelako bromak. Baina txantxa honetan ezin nuen gehiago aguantatu eta nazkatuta nengoela erran nion. Bera irrika hasi zen. Nazkatuta pitzaduratik atera eta etxera korrika joan nintzen. Etxera sartu eta gelan geratu nintzen erdi negarrez.

Aurkeztea ahantzi zait, nik Intza dut izena eta 11 urte ditut. Ile marroia daukat eta begi berde-berdeak, belarra baino berdeagoak. Oso altua naiz eta txotxa bat bezain argala naiz. Lesakako mendi batean bizi naiz nire ama, aita, anai eta nire animala guztiekin: txakurrak, zaldiak, ardiak...

Larunbatean, mendira joan eta erran bezala, pitzadura batean behera erori nintzen, seguru nire gelakideek eginga izango zela zuloa. Ez dut ulertzen, zergatik egiten dizkirate horrelako bromak?

Gelakideek whatsapp talde bat daukate, baina niri ez naute sartu, zergatik? Ba, ez dakit. Gelakideek egunero bromak egiten dizkirate, zergatik? Ba, ez dakit.

Arratsaldean berriro mendira joan nintzen eta nik beraiei egingen nien broma bat, ez beraiek niri. Bazkaldu eta segituan etxetik atera nintzen, mendira joateko bidea hartu eta martxan jarri nintzen. Soka batzuk hartu nituen beraiei broma bat egiteko. Mendira ailegatu nintzenean, broma pentsatzen hasi nintzen, mmm...

-Badakit! Zulo handi bat egingen dut, gero hostoekin tapatu eta azkenerako sokatik tiratu eta zas! Zulora eroriko dira.

Pareta batean gibelean gorde nintzen beraien esperoan eta bat-batean pareta zeharkatu eta maitagarrien mundu batean agertu nintzen. Ezin nuen sinetsi baina oraingoan egia zen, maitagarrien mundu batean nengoen! Dena kolorez beteta zegoen eta maitagarriak txiki-txikiak ziren. Maitagarri guztiak niri ikusi eta oihuka hasi ziren. Beldurra zeukaten nik beraiei zapaltzea, orduan erran nuen:


-Ez beldurtu, nik ez dizuet ezer egingen.

-Desio bat eskatzen utziko dizugu, baina mesedez, ez esan inori ikusi diguzula.-Esan zidaten oraindik harriturik eta beldurturik.

Baietz esan nien, eta noski nire desioa eskatu nuen: nire lagunak ez gehiago broma egitea. Bat-batean mundu horretatik desagertu nintzen. Handik urte batera ez zidaten gehiago bromarik egin eta ongi bizi izan nintzen.

“Ilargi”

Saioa Orbegoza Arzuaga (5. maila)



FAMILIA

Jolasean zebilela pitzadura batean behera erori zen Aritz, bertan maitagarri ilegorri batek gurari bat eska zezakeela esan zion.

Aritz pitzadura estu horretan behera erori zen eta barrunbe argitsu batean bukatu zuen.

Hasieran lurreen zegoen, etzana konorterik gabe, baina gero esnatu zenean, maitagarri bat ikusi zuen bere begi pare parean hegaka.

-Aaaaaa! Ze mina! Itxoin non nago eta nor zara zu?!

-Nik Izar dut izena, eta gurari bat emango dizut.

-Baina, non nago?! Eta zer zara zu?!!

-Maitagarri bat naiz, eta nire etxean zaude.

-Hau da zure etxea! Ba niri barrunbe bat iruditzen zait. Itxoin! gurari bat emango didazula esan duzu! Edozein gurari!?- Esan zuen Aritzek begiak platerak bezala irekita.

-Bai, baina zure familiarekin duzun portaera aldatzearen truke.

-Baina ni oso ondo portatzen naiz nire familiarekin!

-Ez, zure amari beti esaten dio...

-Bai, bai, baietz! Hemendik aurrera ongi portatuko naiz, orain emango ahal didazu nire guraria! Play Station bat nahi dut!!

-Bale baina ondo portatu bestela zure play stationa kenduko dizut.

Egunak joan ahala, Aritz okerrago portatzen hasi zen. Bere Play Stationean jolasten pasatzen zuen egun guztia, ez zituen etxeko-lanak egiten, lagunak gabe gelditzen ari zen eta oso nota txarrak ateratzen zituen. Horrela segitzen bazuen kurtsoa suspendituko zuen!

Arratsalde batean, Aritz bere Play Stationean jolasten ari zela bat batean ke zuri bat agertu zen bere logelan, Aritz zorabiatu egin zen eta bere Play Stationa Aritzekin batera desagertu zen.

-Zer! Non nago?!

-Nire etxean! – Esan zion maitagarriak haserre aurpegiarekin.

-Zergatik!?

- Ez duzu nire baldintza bete, orain zerbait egin beharko duzu aldatzeko.

Denbora luze batez pentsatu ondoren...

-Badakit! 50mko pizza bat egingo dut!

-Baina horrek zure portaera aldatzen lagunduko dizu!?

-Bai, zeren egun guztia pasako dut pizza jaten, horrela ez dut eskolara joan beharrik, ez dut etxekolanik izanen, orduan errieta gutxiago emanen didate gurasoek. Bua! Einstein baino buruargiagoa naiz eta!

-Einstein! Einstein!! Baina zuk ze uste duzu! Ez!!! (Esan zuen maitagarriak bere amorru guztiarekin)

-Zergatik ez! Ba esan zuk ideiarene bat!

-Ez dizut emanen ideiarik, baina lagunduko dizut.

Maitagarriak bere makilatxo astindu eta atzera egin zuen denboran Aritzek bere familia nola sufritzen ari zen ikusteko.

Orduan ikusi zuen ze mina eman zion bere familiari eta hau idatzi zien.

Azken bolada honetan gertaera arraroak pasatzen ari zaizkit baina gertaera horiek lagundu didate ikusten ze mina eman dizuedan. Irakurtzen ari zareten guztioi barkamena eskatzen dizuet egin dizuedan guztiagatik. Hemendik aurrera ongi portatuko naiz.

Espero dut egunen batean barkatzea.


Aritz

“Ilargi”

Maitane Erkizia Arburua (6. maila)

INKESTA: Nora joanen zinateke egun pasa?

BOTO KOPURUA



Hegoi, Saioa eta Maitane

BERTSOA

Doinua: Azken arnasa

Kontinente bat, zazpigarrena
Den-dena da plastikoa.
Animaliak ta landareak
Hau da gure arazoa.
Guk badugula birziklatzeko
Mundu guztiko gogoa.
Birziklatu bai ta hala ere
Ez da izanen nahikoa
Plastikoa inoiz ez erabili
Horixe baita gakoa.
Denon artean hau konpontzeko
Jarri dezagun gogoa.

EGILEAK: Onintze, Katixa eta Laida

ERREZETA: TXOKOLATEZKO TRIKUAK

OSAGIAIAK:

- Gozogintzako txokolate beltza, 90 gramo
- Txokolatezko fideoak, 150 gramo
- Gurina, 140 gramo
- Almendra hautsa, 30 gramo
- Txokolate pralina, 90 gramo
- Irina, 250 gramo
- Azukre-hautsa, 70 gramo
- Arrautza bat




URRATSAK:

1. Ontzi batean ondo bigundu gurina. Ondoren, gehitu azukre-hautsa.
2. Gero, almendra hautsa eta arrautza gehitu. Arrautza osorik.
3. Dena ondo nahastuta dagoenean, gehitu irina. Oso garrantzitsua da berriz ere ondo nahastea guztia.
4. Lortzen duzun orearekin egin pilota bat eta bildu film paperean. Sartu hozkailuan ordubete pixka bat gogortzeko.
5. Ordubete pasatzean atera ore a hozkailutik eta pilota txikiak eginez eman triku forma. Sudurra ondo egin beharra da.
6. Sartu denak labean: 25 minutu, 190 gradu.
7. Bitartean urtu txokolatea Maria bainuan. Trikuak labetik atera eta pixka bat hozterakoan sartu txokolatean sudurtzua ez den beste alde erdia estaliz. Segidan eta txokolatea gogortu aurretik sartu txokolatezko fideotan eta utzi lehortzen.
8. Pintzel batean laguntzarekin eta trikuen eztenak gogortzen dauden bitartean egin begitxoak eta sudur puntatzua txokolatearekin.
9. Eta hozterakoan prest dituzu makina bat triku gozo zure gozamenerako!

ON EGIN!!!

Egileak: Eneko I. eta Unax O.

HEGAZTIAK: HITZ-GURUTZATUAK



HORIZONTALLEAN

1. Hegaztirik lapurrena da eta beste hegaztien kabia eta barruan dauden arrautzak lapurtzen ditu.
2. Papar laranja du, baina guk, gorria aipatzen dugu gure izenean.
6. Hegazti hori ikusten denean udaberria etortzen dela esan nahi du eta bera joaten denean udazkena heldu dela esan nahi du.
8. Tok tok tok aditzen duzunean basoan hor dabil bere etxea egiten.
9. Hegazti arrantzalea da eta portuetan egoten da.
10. Buztana tente du eta Euskal Herriko txoririk txikiena da.

BERTIKALEAN

3. Gauetz erne eta egunez lo egoten da.
4. Gereziak eta sagarrak asko gustatzen zaizkio eta lumaje beltza eta moko laranja du.
5. Zozoak nori deitzen dio ipurbeltz?
7. Hegalari ona eta hegaztirik azkarrena.
8. Tok tok tok aditzen duzunean hor dago bere etxea egiten.

Egileak: Urko eta Beñat E.

JEROGLIFIKOAK

Nola izena zuten lehenagoko elefanteak?  + TAK	Zer agertzen da gauean?  + 
Nola izena du hegaztietako erregeak?  + 	Nola du izena hiritan egoten den hegaztiak? U + 
Nola izena du pilotari honek?  + 	Nora joanen gara aurten Lehen Hezkuntzako ikasleak kurtso bukaeran?  + 

Osatu taula zure erantzunekin

Egileak: Aimar, Beñat Z. eta Enaitz O.

ERRESUMA BATUA

KOKALEKUA: Erresuma Batua Europa kontinentalaren ipar-mendebaldean dago. Geografikoki, Britainia Handiko irlak, Irlandako irlaren ipar ekialdeak (Ipar Irlanda) eta inguruko irla txikiek osatzen dute. Erresuma Batua lau naziok osatua da: Ingalaterra, Eskozia, Gales eta Ipar Irlanda.



ERLIEBEA: Exetertik Newcastlera doan alegiazko lerroak bitan zatitzen du Britainia Handiko erliebea. Lerro horretatik ipar-mendebaldera, zatirik menditsuena eta irlako punturik altuena dago. Lerrotik hego ekialdera arro sedimentarioa eta higadura landutakoak, muino leunen itxura hartzen dute.

KLIMA: Britainia Handiko klima itsasaldeko tipikoa da. Neguak leunak dira 3-7°C eta udak ez dira oso beroak 13-17°C. Oro har euri asko egiten du (800-3500mm). Ekialdeko kostaldea euritsuagoa da.

EKONOMIA: Hirugarren sektoreak Britainia Handiko biztanleriaren %72,1a hartzen du, bigarren sektoreak biztanleriaren %25,7a eta lehenengo sektoreak % 2,2a.

Zohikaztegiak eta otalurrak ugariak dira. Energia elektronikoa (%13)zentral nuklearretatik lortzen da. Energia baliabide handiak ditu erresuma batuak erregai fosiletan, lehendik zituen ikatz-erreserba handiez gainera, ipar-itsasoan gas naturala aurkitu baitzen 1965ean eta petrolio 1969an.

HIRIBURUA: Londres
HIRI NAGUSIAK: Liverpool, Leeds, Manchester, Glasgow, Cardiff, Belfast...
POPULAZIOA: 58.422.000 biztanle
AZALERA: 244.110Km2
DENTSITATEA: 239,3 bizt/km2



HISTORIA: 1763an inperio britainiarra munduko nagusia bihurtu zen. 1922an, mundu osoko biztanleriaren laurdena bere menpe egon zen, estatu guzti horiek Erresuma Batuko hizkuntza, kultura eta eredu industrialak lortu zuten.

Britainia Handia 1. eta 2. mundu gerratetan irabazle suertatu zen. 1960tik aitzinera, gehienek independentzia lortu zuten. Gaur egun Commonwealth taldea osatzen dute.

Erresuma Batuko historia ofizialki 1707ko maiatzaren 1ean hasten da, Ingalaterrako (Gales ere barne zela) eta Eskoziako estatuak bat egin zutenean. 1707ko batasun

itunak Britainia Handiko erresuma sortu zuen. Erresuma horri, 1800eko batasun aktaren bidez, Irlanda batu zitzaion, Britainia Handiko eta Irlandako erresuma batua sortuz. 1922an irla gehienek independentzia lortu zuten baina Ipar aldeak oraindik barruan jarraitzen du izena aldatu zuten Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma batuak.

Egileak: Xabier, Antonio eta Unax B.

LUR GALLASTEGI


Bilbon jaio zen 1983an eta Donostian bizi da gaur egun. Itzulpengintzan eta Interpretazioan lizentziatu zen eta Psikopedagogiako masterra ere egin du. Ingeleseko irakaslea da ogibidez. Lur Gallastegik haur eta gazteentzako ipuinak idazten ditu. Hauek dira oraingoz argitaratu dituen ipuinak:



UDA BAT SENEGALEN



**LIMOIONDOAREN
LOREAK**



SAHARAKO ITSASOA

Hiru liburu hauek arrakasta handia lortu dute; bertzeak bertze **JUUL hauteskundeetan** 2018an **UDA BAT SENEGALEN** saritua izan zen eta 2019an **SAHARAKO ITSASOA**.

“**Liburuak gozagarri**” programaren barruan gure ikastolara gonbidatu dugu Lur. Joan den ortzegunean, maiatzaren 16an, gure gelan egon zen eta hagitx tarte atsegina bizitu genuen berarekin. Galdera pila bat egin genizkion idazle eta liburuen munduari buruz. Hemen jaso ditugu esanguratsuenak.

Noiz hasi zinen idazten? Uda bat Senegalen idatzi nuenan lagunek irakurri egin zuten eta asko gustatu zitzairen eta lehiaketa batera eraman nuen, ez nuen irabazi baina argitaratzen utzi ziaten.

Zergatik egiten dituzu bertze lurraldetako pertsonei buruzko ipuinak?

Nik ez ditut bakarrik kanpoko lurraldetako pertsonei buruzko ipuinak idazten. Idatzi ditudan bertze batzuk Euskal Herrian gertatutakoak dira baina argitaletxeak ez ditu argitaratu.

Gehienetan nire ipuinak nire inguruan sumatzen ditudan kezkei edo arazoei buruz dira. Nik izan ditut lurralde horietako ikasleak eta ezagutzen ditut beraien arazoak.

Benetako pertsonaia eta gertaeratan oinarritu zara zure ipuinak idazteko?

Saiatzen naiz pertsona errealak ez daitezen agertu eta nire familiako edo ingurukoen izenak ez jartzen pertsonaiei. Baina bai oinarritzen naiz inguruko gertaeretan eta batzuetan nire ikasle batzuen istorio eta kontaeretan inspiratu egiten naiz. Batez ere “Uda bat Senegalen” idazterakoan nire alabaren lagun baten historia idatzi nuen edo horretan inspiratu nintzen behintzat.



Liburuetan agertzen diren herrialdeetan egona zara?

Ez, ez naiz nire ipuinetan agertzen diren herrialdeetan egon. Afrikara bidaiatu dut baina ez prezeski Senegalera. Horregatik idatzi aurretik dokumentazio lan handia egiten dut. Interneten bilatzen ditut herri horiei buruzko informazioa: beraien ohiturak, merkatuak, etxeen formak...

Baina ikusirik “Uda bat Senegalen” liburuak izan duen arrakasta, uste dut nahi ta nahiezkoa dudala herri horretara bidaiatzea eta badut joateko asmoa denbora aunitz baino lehen.



Beste liburu bat idazteko asmorik baduzu? Eta non gertatuko dira zure hurrengo liburuaren gertaerak?

Bai, beste liburu bat idatzita daukat eta argitaletxera bidali nuen. Esan didatenagatik, espero dut udazkenerako argitaratzea. Hau bai, Euskal Herrian gertatuko da eta etxe bateko arazoak. Liburuaren izenburua “Etxe txorotarra” izanen da seguraski.

Egileak: Ibon, Eneko, Nahia, Onintze, Maitane

ESPERIMENTUA

Nola sartuko dugu arrautza bat oso osorik botila baten barruan?

MATERIALAK:

Arrautza egosia zurituta

Ura

Lepo lodia duen botila

Bainumarian berotzeko kazo bat

PAUSOAK:

1. Botilean litro laurden bat ura sartu eta kazo barrenean sartu; sutan berotzen jarri.
2. Botila asko berotzean, uretatik atera eta barruko ura hustu
3. Arrautza botilaren ahoan jarri
4. Botila berotu daiteke ere barruan paper zerrenda batzuk errez.



GERTAERA:

Arrautza poliki-poliki botilaren lepotik jaitsiko da barrura erori arte.

ZERGATIK GERTATU DA? :

Botila berotzean barruko airea berotu da eta leku gehiago okupatzen duenez, aire kopuru bat kanpora atera da. Arrautza gainean jartzean irteera tapatuko du.

Gero botila hoztean, airea ere hoztuko da eta botila barruko airearen presioa kanpoko presio atmosferikoa baino txikiagoa da. Orduan, kanpoko presio atmosferikoa arrautza botila barrenera bulkatzen du.

NOLA ATERAKO DUGU ARRAUTZEA?

Botilaren ahoan indarrez putz eginda edota botilaren airea berriz berotuta

Bi modutan, botila barreneko airearen presioa igotzen da eta arrautza kanporantz bulkatzen du

Egileak. Ibon eta June

PIPER-GORRIEN ISTORIA



Behin batean, Piper-Gorri eta bere lagun guztiak euren landarean lasai-lasai zeudela...



Gizon batek Piper-Gorriren lagun min bat hartu zuen.



Piper Gorri eta lagun guztiak kaxan bukatu zuten.



Gizonak kaxa hartu eta kotxean sartu zuen.



Zer gertatuko da gure lagunekin?

KUTSADURA

Orain kutsadura askorekin bizi gara eta oso arazo handia dugu, arazo horri ez zaionez aurre egiten gero eta gehiagora doala dirudi.

Nire ustez oraingoek gutxi kutsatzen saiatu beharko zuten gero ondorengoek sufritu behar ez dezaten.

Gazteok eta gero etorriko direnek antzinakoek botatako zaborrekin eta kutsadura askorekin biziko gara.

Bai beraiek eta bai guk kutsadurarik gabeko bizitza bat beharko genuke.

Beraz, nire ustez, oraingoek gutxi kutsatzen saiatu beharko lukete zeren ondorengoak gara gero hori sufritu behar dugunak.

Maitane E.

SOLDATA ALDAKETAK

Testu hau futbolari batzuk irabazten duten soldatari buruz dator .

Nire iritziz futbolarien eta langile batzuen artean soldata diferentzia handia dago. Futbolariak diru sobera lortzen dute eta gero eta gehiago handitzen da beraien soldata. Langileak, aldiz, ez dute diru aski lortzen bizitzeko. Futbolariak diru asko lortzen dute lan gutxi eginda, ez dute beraien lanarengatik sufritzen eta hori gutxi bada, ez dituzte bere zergak pagatzen. Langileak lan asko eginda, lan gogorrak egin eta aunitz sufrituta ez dute dirua lortzen, eta zergak pagatu behar dituzte. Beraz futbolariak diru gutxiago irabazi beharko lukete eta langileak diru gehiago.

Ibon R

JAZARPENA

Nere iritzia eman nahi dut Bulling-ari edo jazarpenari buruz. Nik testu hau mundu guztiari zabalduko nioke inork jazarpenik egin ez dezan, inork jazarpenik jaso ez dezan.

Nire ustez jazarpena ez da egin behar nahiz eta jasotzen duen pertsonak zerbait txarra egin, gauzak solastuz moldatzen dira eta ez pertsona bati jazarpena eginez.

Jazarpena eginez pertsona bati gaizki pasatzea eragiten diozu egunero eta kasu gogorrenetan bizitzeko gogoia ere ez izatea eragiten diozu.

Nire ustez jazarpena ez da egin behar, tratu txarra jasotzen duen pertsonak ez duelako merezi eta pertsona horrek zerbait egin badu solastuz moldatzen ahal delako.

Onintze I

PAPERAREN ERABILERA

Nire iritzia emanen dut paperaren erabilerari buruz .

Nire iritziz, ikastoletan paper sobera erabiltzen da , eta baita ere aunitz alferrik galtzen da . Nere ustez paper gutxiago erabili beharko litzateke. Hasteko zuhaitz aunitz erabiltzen dira papera egiteko eta gero eta gutxiago daude.

Gainera, zuhaitzak gure bizitzarentzako oso garrantzitsuak dira, oxigenoa botatzen dutelako eta guk oxigenoa behar dugulako bizitzeko.

Laburbilduz, papera gutxiago erabili beharko genuke.

Nahia P.

SAHARAKO ERREFUXIATUAK

Nik Saharako errefuxiatuei buruz idatzi behar dut.

Nik jende guztiari zabalduko nioke errefuxiatuei laguntzeko.

Nire ustez Saharako errefuxiatuak laguntzeko jendeak ahal duena eman beharko luke

Beraiek baldintza hagitx txarretan bizi direlako lagundu behar ko genituen. Saharako errefuxiatuak beraien herrialdetik atera behar izan zuten eta basamortu erdian bizi dira orain duela 50 urtetik. Beraiek gure laguntza behar dute bizitzeko , basamortu erdian ez dago janaririk, ez urik, ez etxe egokirik...

Beraz Saharako errefuxiatuak laguntzeko bakoitzak ahal duena eman beharko luke.

Eneko I

Nafarroako Gobernuak, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendaritza nagusiaren bitartez, "Aniztasuna Aberastasun" eskola-lehiaketa antolatu du bigarren urtez jarraian, aniztasunari buruz gogoeta egitera eta pertsona desberdinak errespetatzen dituen gizarte bat eraikitzean ikuspegi inklusiboa eta positiboa lantzerantz bultzatzeko. Lehiaketaren asmoa da bizikidetzaren errespetatzen duen gizarte plural bateko herritarra izateak ematen dituen aukerak balioestea.

3. eta 5. mailakoek lehiaketan parte hartu dute. Ondorengo 5. mailakoek aurkeztutako proposamena da:



Begiak

BEGI BATEK BERTZE BEGI BAT IKUSTEN DU.
BEGIRADA BAKARRAREKIN DENA IKUSTEN DA.
BEGIAK DENA IKUSTEN DUTE.
BEGIRADENGATIK IKUSTEN DA ANIZTASUNA.
ZURE BEGIRADA MAGIKOA DA.






DESBERDINAK DIRUTE. BEGIAK.
BEGIEK KOLORE DIFERENTEAK DITUZTE, IKUSTEN DUGUNA DESBERDINA DA.
BEGIEK IKUSTEN DUTE BAINA KOLORE DESBERDINEZ.
GUZTIAK DIFERENTEAK BAINA GUZTIAK MAITASUNEZKOAK.

ZURE BEGIRADEK GAUZA AUNITZ ERRATEN DUTE.
ZURE BEGIEK GAUZA AUNITZ SENTITZEN DITUZTE.
ZURE BEGIAK GERO ETA HURBILAGO IKUSTEN DITUT MAITASUNA SENTITZEN DUDALAKO.
NIRE BEGIEK, NAIZENA ERAKUSTEN NAUTE.

ETA...

ZURE ONDOAN ASKATASUNA SENTITZEN DUT, NAIZENA IKUSTEN DUTELAKO.
BEGITTU ETA DENA SENTITU.
BIHOTZETIK SENTITU ETA BEGIETATIK BIZITU.

GERO ETA EDERRAGO IKUSTEN ZAITUT.




AIMAR, ARANE, XIKER, LEA, UXUE, NAHIA, UDANE, OINATZ, LUR, LUKA


BARRASKILOA ETA SUGANDILA



ALESSANDRA, XUNE, MIREN
"KARAKOLAK ESKALATZEN DUTE. BABAKIN ITXEKITZEN DIRE"




"KARAKOLA, EURIA EGITEN DUENEAN ATETZEN DA"
MARKEL, OIHAN I, MATTIN




"BELARRA, LETXUA JATEN DITU"
OLHAIN, ARRATE, SAIOA



"TURBO ETA "NORMALAK" MOTATAKOAK DAUDE"
MAREN, ZUHATZ



"BUZTANA XEHETU EGITEN ZAIE"
IMO, KATIXA, HARRI



"EGUZKIA ATERATZEN DENEAN GUSTORA EGOTEN DA"
AIUR, JON, OIHAN A.



"ESKALATU EGITEN DUTE ESKUEKIN LAGUNDUTA"
EKAI, IZEI, IBAI

Nafarroako Gobernuak, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendaritza nagusiaren bitartez, "Aniztasuna Aberastasun" eskola-lehiaketa antolatu du bigarren urtez jarraian, aniztasunari buruz gogoeta egitera eta pertsona desberdinak errespetatzen dituen gizarte bat eraikitzean ikuspegi inklusiboa eta positiboa lantzerako bultzatzeko. Lehiaketaren asmoa da bizikidetzaren errespetatzen duen gizarte plural bateko herritarra izateak ematen dituen aukerak balioestea. 3. eta 5. mailakoek lehiaketan parte hartu dute. Ondorengo 3. mailakoek aurkeztutako proposamena da:



ELKARRIZKETAN...

HARRIAK DIFERENTEAK ZARETE.

KOLORE ETA TAMAINA DESBERDINAK DITUZUE.

ZUK PUNTAK DITUZU ETA NIK EZ.

MARROXKA ETA NARANJA IKUSTEN ZAITUT, ORBANAK DITUZU; BOROBILA ETA LATZA DIRUDIZU.

GASTATUA ZAUDE, HANDITZEN ARI ZARA, ZAHARTZEN. PUNTU BELTZAK DITUZU. USTE DUT LEUNA ZARELA.

KOLORE ARGIAK IKUSTEN DITUT. ARRANPALA KENTZEN ARI ZIRELA HAN AURKITU ZINTUDAN. BISTAN ZINEN. UKITU ZINTUDAN ETA LATZA SUMATU NIZUN.


KRISTALEZKOA ZARA? GARDENA ZARA? DISDIRATSUA ZARA?

XURIA... ITZAL POLITA DUZU, GRIXA.

BIHOTZ ITXURA DUZU, BARRENEKO KOLOREAK ALAIA BIHURTZEN ZAITU. KANPOKO ILUNTASUNAK BOROBIKTZEN ZAITU.

ARROXA IKUSTEN ZAITUT, PUNTAK DITUZU, ZORROTZAK? MINA EGITEN DUTE?

LUZEA IKUSTEN ZAIZU, FINA. HIRU KOLORE IKUSTEN DIZKIZUT GORPUTZEAN, NAHASIAK.



LESAKAKO UDALAREN LAGUNTZAZ



TANTIRUMAIRU
IKASTOLA - LESAKA

KATTALIN CASTRO ORDOKI 4.maila

ARRETXEA, 13
Telf. 948 637 308
<http://www.tantirumairuikastola.com>